**2023KO UZTAILAREN 6AN UDALBATZA OSOAK**
**EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO**
**EL 6 DE JULIO DE 2023**

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Seia | **DIA**: Seis. |
| **HILABETEA**: Uztaila. | **MES:** Julio. |
| **URTEA**: Bi mila eta hogeitahiru | **AÑO**: Dos mil veintitrés |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko seietan | **HORA DE COMIENZO**: Dieciocho horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Apartekoa | **CARACTER DE LA SESION**: Extraordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |

**UDALBURUA / PRESIDENTA**:
LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK / REUNIDOS/AS**:

EAJ-PNV

ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
AINHOA ARRESE ARRATIBEL
MARIOLA PASCUAL PAREDES

EDORTA DIAZ DEL RIO
MARIA ELENA RUIZ ZABALA
MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
OLATZ ARRESE IMAZ

AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
AITOR URDANGARIN IRASTORZA
YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
IKER URTEAGA REBOLLAR

| | |
|---|---|
| Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak<br><br>EVA ALVAREZ ATANES<br>ANGEL REDONDO FERNANDEZ<br><br>ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE<br><br>WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE<br><br>**IDAZKARIA / SECRETARIA:**<br>ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA | |
| Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Idoia Noble interpretariak. | En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa y la intérprete Idoia Noble. |
| **1.- AURREKO AKTAK**. 2023ko ekainaren 17 eta 26ko akten onespena.<br><br>Aipatutako akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira berarekiko zer esanik ez dagoelako. | **1.- ACTAS ANTERIORES**. . Aprobación de las actas del 17 y del 26 de junio.<br><br>Tras dar cuenta de las actas, al no proponerse modificaciones, se aprueban por unanimidad. |
| **2.- BATZARRALDIAK**. Osoko Bilkuren maiztasunari buruzko proposamena. 203IDBO0010<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV), proposamenaren berri eman du: | **2.- SESIONES**. Propuesta sobre periodicidad de las sesiones del Pleno.<br><br>La Sra. Alcaldesa da cuenta de la propuesta: |
| “2023ko maiatzaren 28an izandako toki hauteskundeen ondorioz, 2023ko ekainaren 17an bilera egin zen, Korporazio berria eratzeko. Orain azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuaren bidez onartutako Toki Entitateko Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren, 38. artikuluaren arabera, Udalbatza Osoak egin beharreko bilera arrunten maiztasuna zehaztea dagokio.<br><br>Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak adierazten du (46.2a artikulua), Udalbatza Osoak egin beharreko ohiko bileren maiztasuna biztanleen araberakoak izango direla aurreikusten du, hau da: *gutxienez 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan hilero, bi hilabetero 5.001 eta 20.000 biztanle dauden udalerrietan eta hiru hilabetean behin, 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan.* | Constituida la nueva Corporación en sesión extraordinaria celebrada el 17 de junio de 2023, como consecuencia de las elecciones locales del 28 de mayo de 2023, procede determinar el régimen de celebración de las sesiones ordinarias del Pleno, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 38 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.<br><br>A estos efectos, el artículo 46.2. a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, establece la periodicidad mínima de la celebración de las sesiones ordinarias del Pleno en atención de la población del Municipio, esto es: *como mínimo*, *mensual en los municipios de más de 20.000 habitantes, cada dos meses en municipios con población entre 5.001 y 20.000 habitantes y trimestral en municipios de hasta 5.000 habitantes*. |

| | |
|---|---|
| Horren ondorioz, erabaki-proposamen hau egiten diot Udalbatza Osoari:<br><br>Lehenik: Udalbatza Osoak egin beharreko ohiko bilerak udaletxeko batzar aretoan, egingo dira, hilabete bakoitzaren azkeneko ostegunetan, arratsaldeko 18,00etan lehenengo deialdian eta bi egun geroago ordu berdinean bigarren deialdian (90.2 ROF) eta gutxienez bi hilabetean behin.<br><br>Bigarren: Alkateak, udal bozeramaileei aldez aurretik kontsulta eginda eta gehiengoaren adostasunarekin, edo talde politikoen bozeramaileek horrela eskatuta eta beti ere arrazoituta, ohiko udalbatza osoa egiteko data eta ordua aurreratu edo atzeratu dezake, gehienez bi aste, nahiz eta egun berria aurrez ezarritako dataren hilabetekoa ez izan. Dena dela beti ere ohiko izaera izango du.<br><br>Hirugarren: Aparteko bilerei buruz, indarrean dagoen tokiko legeria aplikatuko da.<br><br>Laugarren: Erabaki honen berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea.” | En consecuencia, se somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:<br><br>Primero: Establecer que el Pleno del Ayuntamiento celebrará sesión ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial**, el último jueves de cada mes a las 18,00 horas**, en primera convocatoria, y dos días después, a la misma hora, en segunda convocatoria (art. 90,2 ROF), y como mínimo cada dos meses.<br><br>Segundo: El Alcalde, previa consulta y acuerdo por mayoría de los portavoces municipales o a instancia de éstos, por causa justificada, podrá variar la fecha de celebración de la sesión ordinaria, adelantando o retrasando el día y hora de celebración en un intervalo máximo de dos semanas, incluso aunque el nuevo día fijado no estuviera comprendido en el mes correspondiente a aquél, conservando ésta el carácter de ordinaria.<br><br>Tercero: Para las sesiones extraordinarias del Pleno se estará a lo que disponga la legislación local vigente.<br><br>Cuarto: Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.” |
| Alkate andreak esan du ordua aldatzearen arrazoia ondorengoa dela: “Azken legegintzaldian Herrilab proiektuaren barruan kontziliazio erantzukizuna sustatzeko eta neurriak hobetzeko ekimenean parte hartu dugu eta uste dut administrazioa eredugarri izan behar dugula eta denon kontziliazioan aurrera pauso bat emate aldera, orain arte arratsaldeko zazpietan egiten genituen udalbatzak seietara aldatzea proposatzen dugu.” | La Sra. Alcaldesa comenta que el motivo del cambio de hora es el siguiente: "En la última legislatura hemos participado en la iniciativa de promover la responsabilidad de la conciliación y mejorar las medidas dentro del proyecto Herrilab y creo que la Administración tiene que ser ejemplar y para avanzar en la conciliación de todos proponemos cambiar a las seis las corporaciones que hasta ahora celebrábamos a las siete de la tarde. " |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek aurkeztu dituzte: | En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones: |
| Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (BEASAINGO EH BILDU): “Ordua aldatzeari buruzko proposamenarekiko dudak ditugu. Iruditzen zaigu ondo dagoela kontziliazioarekiko baina zalantzan jartzen dugu herritarren parte hartzearekiko hain positiboa den. Beraz, kontziliazio eta parte hartzeko gatazka hori dela eta abstenitu egingo gara.” | Hasier Agirre Elkoroberezibar (BEASAINGO EH BILDU): "Tenemos dudas con la propuesta de cambio de hora. Nos parece que está bien para la conciliación, pero cuestionamos si es tan positivo para la participación ciudadana. Por lo tanto, nos abstendremos ante este conflicto de conciliación y participación. " |

| | |
|---|---|
| Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:<br><br>Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)<br>Aurkako botoak: 0<br>Abstentzioak: 5 (BEASAINGO EH BILDU)<br><br>Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da. | Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:<br><br>Votos a favor: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)<br>Votos en contra: 0<br>Abstenciones: 5 (BEASAINGO EH BILDU)<br><br>En consecuencia, se aprueba la propuesta por mayoría absoluta. |
| **3.- BATZORDE INFORMATIBOAK**. Batzorde txostengileak eratzeko proposamena. 203IDBO0010<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV), proposamenaren berri eman du: | **3.- COMISIONES INFORMATIVAS**. Propuesta de constitución de las comisiones informativas.<br><br>La Sra. Alcaldesa da cuenta de la propuesta: |
| “BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORREN ERAKETA, KONPOSAKETA ETA FUNTZIOAK<br><br>AURREKARIAK<br><br>I.- Batzorde informatiboak, izaera osagarria duten organo kolegiatuak dira eta helburua, udalbatzaren Osoko Bilkuretan edota Gobernu Batzordetan erabaki behar diren gaiak aztertzea, haiei buruzko txostenak egitea edota egindako kontsultei erantzutea da.<br><br>II.- Batzorde hauen eginkizun eta funtzioak, erlazio zuzena dute batzorde horiek hornitzen dituzten arloen betebeharrekin.<br><br>III.- Udalerria da, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko toki-erakundea eta herritarrek tokiko gai publikoetan parte hartzeko duten bidea, autoantolaketarako ahalmena du eta behar duen antolamendua eta administrazio- eta instrumentu-egiturak ezarri beharko ditu, helburu hauekin:<br><br>• Gobernu eta administrazio onaren printzipioa benetan gauzatzeko.<br>• Baliabide publikoak finantzen jasangarritasunaren aldetik modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko. | CREACIÓN, COMPOSICIÓN Y FUNCIÓN DE COMISIONES INFORMATIVAS PERMANENTES<br><br>ANTECEDENTES<br><br>I.- Las comisiones informativas constituyen un órgano colegiado de carácter complementario, cuya finalidad consiste en el estudio, informe o consulta de los asuntos que han de ser sometidos a la decisión del Pleno o de la Junta de Gobierno Local.<br><br>II.- Los cometidos y funciones de estas comisiones tienen una relación directa con los de las áreas departamentales de las que se nutren.<br><br>III.- El municipio, entidad local básica de la CC AA, y cauce de participación de la ciudadanía en los asuntos públicos locales, tiene potestad de autoorganización y debe acordar la organización y estructura administrativa e instrumental necesaria para el ejercicio de sus competencias, con la finalidad de:<br><br>• Hacer efectivo el principio de buen gobierno y de buena administración.<br>• Gestionar eficaz y eficientemente los recursos públicos en clave de sostenibilidad financiera. |

| | |
|---|---|
| IV.- Hiru dira udalerriaren elementuak: lurraldea, biztanleria eta antolakuntza (ELOLEKO 11. artikulua), hots:<br><br>• Lurraldea egiturazko elementua da, udalerriak bere eskumenak jarduten duen esparru geografikoa.<br><br>• Lurralde horretan bizi direnak, udalerriaren biztanleria osatzen dute.<br><br>• Udalerriak antolakuntza-arauak eragina izan ditzaten, beharrezkoak diren organoez hornitu behar da.<br><br>V.- Udalerriak autonomi osoa du toki-interes publikoko gaiak antolatu eta kudeatzeko eta autonomia horretan ondorengoa aurreikusten da:<br><br>• Lurraldea antolatzea,<br>• Herritarrei zuzendutako tokiko zerbitzuak arautzea eta ematea.<br>• Ekimen ekonomikoa, bere zerbitzupeko langileen inguruko politika eta kudeaketa, ondarea eta diru-bilketa, eta orobat bere ogasunen baliabideak administratzea eta erabiltzea (antolakuntza).<br><br>VI.- Hiru esparru horiek erreferentzi modura hartuz eta III aurrekarietan adierazitako helburuak betetze arren, proposatzen da jarraian aipatzen diren batzorde informatiboak eratzea:<br><br>LEGERIA APLIKAGARRIA<br><br>- Toki Araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (ELOLE). 11. Artikulua (udalerria eta osatzen duten elementuak) eta 20. Artikulua (udal antolakuntza)<br>- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (LILE) 8, 9, 10 artikuluak (udalerriaren autonomia eta helburuak). 7, 17 artikuluak (udalerrien eskumenak). 29 eta 30 artikuluak (organo osagarriak eta publizitatea).<br>- Azaroaren 28ko 2568/1986ko Erret Dekretua, Toki Entitateen antolakuntza, funtzionamendu eta araubidea onartzea duena (ROF). 123tik 127ra eta 134tik 138ra doazen artikuluak (batzorde informatiboen funtzionamendua). | IV.- Tres son los elementos de un municipio: territorio, población y organización (art. 11 LRBRL), a saber:<br><br>• El territorio es el elemento estructural, el marco geográfico y el espacio donde el municipio ejerce su competencia.<br><br>• Los residentes en ese territorio constituyen la población del municipio.<br><br>• El municipio debe dotarse de los órganos necesarios para desplegar sus potestades normativas de organización.<br><br>V.- El municipio goza de plena autonomía para ordenar y gestionar los asuntos de interés público local y esa autonomía comprende:<br><br>• Organizar su territorio.<br>• Regular y prestar los servicios locales, dirigidos a la ciudadanía.<br>• La iniciativa económica, la política y gestión del personal a su servicio, el patrimonio y recaudación, y la administración y destino de los recursos de sus haciendas (organización).<br><br>VI.- Tomando como referencia esas tres áreas y en aras a cumplir los objetivos indicados en el expositivo III, se propone crear las comisiones informativas que a continuación se indican:<br><br>LEGISLACIÓN APLICABLE<br><br>- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local (LRBRL). Artículo, 11 (municipio y elementos que lo componen) y art. 20 (organización municipal)<br>- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. (LILE). Artículos, 8, 9, 10 (autonomía local del municipio y fines), artículos 7, 17 (competencias de los municipios), artículos 29 y 30 (órganos complementarios y publicidad).<br>- Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre. Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las Entidades Locales (ROF). Artículos 123 a 127 y 134 a 138 (funcionamiento de las comisiones informativas). |

| | |
|---|---|
| Horren ondorioz, Alkateak ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Udalbatza Osoari adieraziz onartu ahal izateko quoruma, gehiengo osoarena dela:<br><br>Lehenik. Korporazioko ondorengo hiru batzorde informatzaile hauek eratzea: antolakuntza, herritarrak eta lurraldea.<br><br>Kontuen Batzorde Bereziaren funtzioak, Antolakuntza batzordeak beteko ditu.<br><br>Bigarren. Batzorde informatibo hauen funtzioak, LILEk udalerriei ematen dizkien eskumenen banaketa egitetik datoz. Ikus I eranskina.<br><br>Batzordeak arlo hauetako gaiak tratatuko diztuzte:<br><br>Antolakuntza: Idazkaritza, ekonomia eta antolakuntza eta giza baliabideak.<br><br>Herritarrak: Berdintasuna, hizkuntza politika, merkataritza, kultura, kirola, gaztedia, ongizatea, musika eskola, euskaltegi.<br><br>Lurraldea: Hirigintza, zerbitzuak, udaltzaingoa.<br><br>Hirugarren. Batzorde informatibo guztiek, hilean behin egingo dituzte bilerak.<br><br>Laugarren. Batzorde informatiboetako ordezkaritzak proportzionaltasuna gorde behar duenez, udal taldeek Plenoan duten ordezkaritzarekiko, batzordeak osatuko dira udal talde guztiek parte hartzeko moduan, proportzio honetan: | En consecuencia, esta Alcaldía somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo, siendo preciso el quorum de la mayoría absoluta legal para su aprobación:<br><br>Primero. Crear en el seno de la Corporación las siguientes comisiones informativas permanentes: organización, ciudadanía y territorio.<br><br>Las funciones de la Comisión Especial de Cuentas, serán ejercidas por la comisión de Organización.<br><br>Segundo. Las funciones de esas comisiones informativas obedecen a una distribución de las competencias que la LILE otorga a los municipios y que son las que figuran en el Anexo I.<br><br>Las comisiones conocerán los asuntos de las siguientes áreas:<br><br>Organización: Secretaría, economía, organización y recursos humanos.<br><br>Ciudadanía: Igualdad, política lingüística, comercio, cultura, deportes, juventud, bienestar social, musika eskola, euskaltegi.<br><br>Territorio: Urbanismo, servicios, policía municipal<br><br>Tercero.- Todas las comisiones informativas celebrarán sus sesiones una vez al mes.<br><br>Cuarto.- Dado que la representatividad en las comisiones informativas debe ser proporcional a la representación de los grupos políticos en el Pleno, las comisiones estarán integradas de forma que participen en las mismas todos los grupos municipales, en la siguiente proporción: |
| EAJ/PNV: 4<br>BEASAINGO EH BILDU: 2<br>SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK: 1<br>ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE: 1 | |
| Bosgarren. Udal taldeek bozeramailearen bitartez, idatziz proposatu ondoren batzorde ezberdinetarako ordezkaritzak, Alkateak ebazpena emango du, batzorde bakoitzeko zinegotzi-kideak izendatuz. | Quinto.- La adscripción concreta a cada comisión de los corporativos en representación de cada grupo municipal se realizará mediante resolución del Alcalde a propuesta escrita del portavoz del grupo municipal. |

| | |
|---|---|
| <u>Seigarren</u>. Batzorde bakoitzeko lehendakariaren izendapena egiteko, Alkateak Ebazpena emango du, batzordeak proposatuta.<br><br><u>Zazpigarren</u>.- Herritarren partaidetzari leku ematearren, batzorde informatiboak irekiak izango dira, ondorengoetarako:<br><br>• Asistentzia<br>• Hitzarekin baina botorik gabe: parte-hartzea, kasua bada, ekarpenak eginez.<br><br><u>Zortzigarren</u>. Erregelamendu organikoa ez dagoenez, batzordeen funtzionamendua, ROFen aurreikusten diren arauetara egokituko da. | <u>Sexto.-</u> El nombramiento del Presidente efectivo de cada comisión se efectuará a propuesta de la misma, mediante resolución de Alcaldía.<br><br><u>Séptimo.-</u> Al objeto de dar cauce al principio de participación ciudadana, las comisiones informativas serán públicas, a los solos efectos de:<br><br>• Asistencia<br>• Con voz pero sin voto: Participación mediante realización de aportaciones, en su caso.<br><br><u>Octavo</u>.- Al no disponer de reglamento orgánico municipal, el funcionamiento de las comisiones se ajustará a las reglas establecidas en el ROF. |
| <u>I ERANSKINA</u><br><br><u>ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN ESKUMENAK</u><br><br>HERRITARREN ARRETA<br><br>Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.<br><br>OGASUNA ETA ONDAREA<br><br>Kontuen Batzorde Bereziari dagozkionak (Toki-erakundeetako kontabilitatea arautzen duen legedia errespetatuz, Korporazioko Osoko Bilkurak onetsi beharreko kontuak, aurrekontukoak eta aurrekontutik kanpo daudenak, azterketa, ikerketa eta txostena burutzea).<br><br>Udal zerbitzu publikoak eskaintzeko euskarri ekonomiko-finantzarioa eta administratiboa.<br><br>Tributuen kudeaketa eta bilketa.<br>Baliabide materialak: hornikuntza eta zerbitzuak.<br>Kontabilitate publikoa, eta kontuen aitorpena eta kontrola. | <u>ANEXO I</u><br><br><u>COMPETENCIAS DE LA COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN</u><br><br>ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA<br><br>Ordenación y gestión de estructuras de participación ciudadana, transparencia, buen gobierno y acceso a las nuevas tecnologías. Administración electrónica, racionalización y simplificación de procedimientos. En particular, la promoción en el término municipal de la participación de los ciudadanos en el uso eficiente y sostenible de las tecnologías de la información y las comunicaciones.<br><br>HACIENDA Y PATRIMONIO<br><br>Las correspondientes a la Comisión Especial de Cuentas (el examen, estudio e informe de todas las cuentas, presupuestarias y extrapresupuestarias, que deba aprobar el Pleno de la Corporación, de acuerdo con lo establecido en la legislación reguladora de la contabilidad de las entidades locales).<br><br>Soporte económico-financiero, y administrativo para la prestación de los servicios públicos municipales.<br>Gestión y recaudación de tributos.<br>Medios materiales: suministros y servicios.<br>Contabilidad pública, control y rendición de cuentas. |

| | |
|---|---|
| Ekonomia-finantzaren eta aurrekontuaren barne-kudeaketaren kontrola eta fiskalizazioa, bai eta kontabilitatearena eta diruzaintzarena.<br>Estatistika ekonomiko-finantzarioak. | Control y fiscalización interna de la gestión económico-financiera y presupuestaria, las de contabilidad y tesorería.<br>Estadísticas económico-financieras. |
| Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.<br>Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat. | Protección, gestión y conservación del patrimonio histórico municipal y elaboración y aprobación de planes especiales de protección y catálogos.<br>Gestión del patrimonio municipal y regulación de su uso y destino y su conservación y mantenimiento, de acuerdo, en su caso, con la normativa foral. |
| GIZA-BALIBIDEAK | RRHH |
| Giza baliabideak: hautaketa, lan-harremanak, ordainsarietatik zein formaziotik eratorritakoa.<br>Herritarren arreta zerbitzu integralaren antolakuntza eta funtzionamendua. | Recursos humanos: selección, relaciones laborales, retributivas y de formación.<br>Organización y funcionamiento del servicio integral de atención a la ciudadanía. |
| Udal-zerbitzu publikoak eskaintzeko lege-, ekonomia-, finantza, eta administrazio-laguntza. | Soporte legal, y administrativo para la prestación de los servicios públicos municipales. |
| ENPLEGUA | EMPLEO |
| Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak. | Desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo. |
| <u>HERRITARRAK BATZORDEAREN ESKUMENAK</u> | <u>COMPETENCIAS DE LA COMISIÓN DE CIUDADANÍA</u> |
| GIZARTE-EKINTZA | ACCIÓN SOCIAL |
| Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea. | Ordenación, planificación y gestión de los servicios sociales. |
| Diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea. | Ordenación, programación y gestión en materia de garantía de ingresos e inclusión social. |
| Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan. | Gestión de las políticas de integración social en materia de inmigración, de acuerdo con la legislación en materia de extranjería y en cooperación con las instituciones autonómicas. |
| Garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea. | Planificación, ordenación y gestión de políticas en materia de cooperación para el desarrollo. |
| KONTSUMOA ETA OSASUNA | CONSUMO y SALUD |
| Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea. | Promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública. |
| Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea. | Ordenación y gestión de la defensa y protección de personas usuarias y consumidoras. |

| | |
|---|---|
| Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere. | Ordenación, planificación y gestión, así como control sanitario de cementerios y servicios funerarios. |
| KULTURA | CULTURA |
| Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea. | Ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público. |
| KIROLA | DEPORTES |
| Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea. | Ordenación y promoción del deporte y de actividades deportivas y gestión de equipamientos deportivos de uso público. |
| HEZKUNTZA | EDUCACIÓN |
| Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatze-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen. | Participación en la programación de la enseñanza y en la vigilancia del cumplimiento de la escolaridad obligatoria, así como conservación, mantenimiento y vigilancia de los edificios destinados a centros públicos de educación infantil, de educación primaria y de educación especial. Asimismo, en relación con los ámbitos anteriores, cooperación con la Administración educativa en la obtención de los solares necesarios para la construcción de nuevos centros docentes públicos. |
| EUSKARA | EUSKERA |
| Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera. | Planes de normalización, ordenación y gestión de las políticas de fomento y uso del euskera, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 7 de esta ley. |
| GENEROA | GÉNERO |
| Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea. | Ordenación y gestión de las políticas de igualdad de género y fomento de la equidad. |
| GAZTERIA | JUVENTUD |
| Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea. | Planificación, ordenación y gestión de políticas de juventud. |
| MERKATARITZA | COMERCIO |
| Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren | Ordenación y gestión del comercio interior. En concreto, lo relativo a la ordenación y gestión sobre mercados, abastos, ferias, lonjas, mataderos y comercio ambulante, incluyendo igualmente la planificación y ordenación del uso comercial al por menor y grandes equipamientos comerciales atendiendo a criterios de ordenación urbanística y utilización racional del |

| | |
|---|---|
| arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena. | suelo, así como la ordenación, inspección y sanción en materia de compraventa de vehículos y otros artículos en espacios públicos. |
| TURISMOA | TURISMO |
| Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea. | Gestión y promoción del turismo local. |
| <u>LURRALDE BATZORDEAREN ESKUMENAK</u> | <u>COMPETENCIAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO</u> |
| INGURUMENA | MEDIO AMBIENTE |
| Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea. | Ordenación, gestión, prestación y control de los servicios de recogida y tratamiento de residuos sólidos urbanos o municipales, así como planificación, programación y disciplina de la reducción de la producción de residuos urbanos o municipales. |
| OBRAK ETA ZERBITZUAK | OBRAS Y SERVICIOS |
| Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa. | Ordenación, gestión, prestación y control de los servicios en el ciclo integral del agua de uso urbano. Esta materia incluye el abastecimiento de agua en alta o aducción, abastecimiento de agua en baja, saneamiento o recogida de las aguas residuales urbanas y pluviales de los núcleos de población y depuración de las aguas residuales urbanas. |
| Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea. | Ordenación, gestión y prestación del servicio de alumbrado público, limpieza viaria, acceso a núcleos de población y pavimentación de vías urbanas, así como parques y jardines. |
| Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa –garraiobidea edozein dela– antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerriaren barruan egiten bada osorik. | Ordenación, planificación, programación, gestión, disciplina y promoción de los servicios urbanos de transporte público de personas que, por cualquier modo de transporte, se lleven a cabo íntegramente dentro de sus respectivos términos municipales. |
| Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea. | Ordenación y gestión de las actividades de servicios. |
| Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne). | Ordenación y gestión, incluidas conservación y mantenimiento, de las vías públicas urbanas y rurales de titularidad municipal dentro del término municipal. |
| Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte. | Ordenación, gestión, disciplina y promoción en vías urbanas de su titularidad de la movilidad y accesibilidad de personas, vehículos, sean o no a motor, y animales, y del transporte de personas y mercancías, para lo que podrán fijar los medios materiales, técnicos y humanos que se consideren necesario. |

| | |
|---|---|
| HIRIGINTZA<br><br>Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.<br>Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa.<br>Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.<br>Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.<br>Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.<br><br>POLIZIA, TRAFIKOA ETA SEGURTASUNA<br><br>Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.<br>Espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatzea.<br>Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.<br><br>Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.<br>Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.<br>Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.” | URBANISMO<br><br>Ordenación y gestión del uso de servicios, equipamientos, infraestructuras e instalaciones de titularidad pública.<br>Planificación, programación y gestión de viviendas.<br>Ordenación complementaria, promoción, gestión, defensa y protección del medio ambiente y desarrollo sostenible, incluida la protección contra la contaminación acústica, lumínica y atmosférica en las zonas urbanas.<br>Ordenación, gestión, ejecución y disciplina en materia urbanística.<br>Ordenación y gestión de establecimientos públicos y actividades recreativas.<br><br>POLICIA, TRAFICO Y SEGURIDAD<br><br>Ordenación y gestión de la protección civil, emergencias, prevención y extinción de incendios.<br>Ordenación y gestión de las relaciones de convivencia en el espacio público.<br>Ordenación y gestión de la policía local, ordenación del tráfico, seguridad vial, estacionamiento de vehículos y colaboración en la seguridad ciudadana.<br><br>Ordenación y gestión de la seguridad de las actividades organizadas en espacios públicos y en los lugares y establecimientos de pública concurrencia.<br>Ordenación y gestión en materia de animales de compañía y potencialmente peligrosos.<br>Ordenación, gestión y vigilancia de las actividades y los usos que se llevan a cabo en las playas, lagos y montes, sin perjuicio de las competencias de los territorios históricos en esta materia. Ordenación del acceso a las playas y prestación del servicio de limpieza de estas.” |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek aurkeztu dituzte: | En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones: |

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Tal y como hicimos en la legislatura pasada, nuestra propuesta ante la organización de estas comisiones ha sido diferente. Creemos que mejoraría el funcionamiento de las comisiones y se podrían tratar en mayor profundidad las distintas áreas que las componen por la relevancia que tienen. Nosotros propusimos que en vez de tres comisiones fueran seis: organización, economía, ciudadanía, igualdad y bienestar social, territorio, servicios y seguridad. Pensamos que en las comisiones los temas se

| | |
|---|---|
| presentan como si estuvieran ya resueltos, cuando podrían profundizarse algo más. Ante esta opacidad, votaremos en contra.” | |
| Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (BEASAINGO EH BILDU): “EH bilduk bere proposamena egin du batzordeak osatze aldera eta uste dut proposamena jaso duzuela. Herritarrak batzordea bitan zatitzea proposatzen dugu: ongizatea eta berdintasuna alde batetik eta bestetik herritar nortasuna eraikitzen laguntzen duten beste azpisailak, kultura, gaztedia, kirola, …Hau zergatik?. Azkeneko legegintzaldian behin eta berriz azpimarratu dugu oposizioaren lanerako, antolaketarako eta baita ere herritarren parte-hartzerako, pauso bat izango litzatekeela. Seguraski oraindik batzorde gehiago egongo balira erraztuko luke, nahi z eta gauza batzuk penalizatu, baina gure ustez udala eta herria irabazten aterako litzateke. Banaketa naturala dela iruditzen zaigu eta beste proposamena ere norabide berdinean joan da. Zer pentsatua izan duzue eta erabaki duzue berdin jarraitzea. Horren aurrean gu ere aurkako botoa emango dugu.”<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bi udal taldeen proposamenak jaso ditugu eta guk EUDELek egiten duen gomendioa jarraitzen dugu, hau da, batzorde kopurua txikia izatea. Azken tendentziak ere horrela adierazten dute. Udalerriek, nahi duten moduan antolatzeko gaitasuna dute. Historikoki batzorde kopuru handiagoa izan dugu, baina tendentzia hirura, laura murriztea da. Adibide modura, Errenteria, Hernani, Ordizia eta Zumarragak hiru batzorde dituzte eta Irunek, lau. Beste batzuk badaude batzorde kopuru gehiago dituztenak baina tendentzia hori da. Hori talde nagusi izatea eta horien azpian azpisailak izatearen onura nagusiena, beraien arteko elkarlana eta koordinazioa da. Arlo bakoitzak isla bat izatea ez da helburua baizik eta denen arteko sinergiak aprobetxatzea. Biok egin duzuen planteamendua da herritar batzordetik, ongizatea kanpora ateratzea eta horrekin beste batzorde bat eratzea. Ongizateak batetik asistentzia eta bestetik prebentzioa eskatzen du eta prebentzio alorrean, batik bat, beste guztien elkarlana ezinbestekoa da, izan ere ongizate saila bakarrik ezin da tratatu. Gaztedia, kirol eta beste hainbat sailen lana ezinbestekoa da. Zuen planteamenduak aztertu ditugu eta guk 2016an hasitako antolakuntza proposamenarekin aurrera egiten dugu ikusten dugulako onurak | Hasier Agirre Elkoroberezibar (BEASAINGO EH BILDU): "EH BILDU ha hecho su propuesta para la constitución de las comisiones y creo que la habéis recibido. Proponemos la división de la comisión de ciudadanía en dos: bienestar e igualdad por un lado y por otro las subáreas que contribuyen a la construcción de la identidad ciudadana, cultura, juventud, deporte,... ¿por qué?. En la última legislatura hemos insistido en que sería un paso más en el trabajo de la oposición, para su organización y también para la participación ciudadana. Seguramente si aún hubiera más comisiones facilitaría el trabajo, a pesar de penalizar algunos aspectos, pero creemos que el ayuntamiento y el pueblo saldrí an ganando. Consideramos que es una distribución natural y la otra propuesta ha ido en la misma dirección. Habéis pensado y habéis decidido seguir igual. Ante ello votaremos también en contra. "<br><br>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Hemos recibido las propuestas de los dos grupos municipales y seguimos la recomendación de EUDEL de que el número de comisiones sea reducido. Las últimas tendencias también van por ahí. Los municipios pueden organizarse libremente. Históricamente hemos tenido más comisiones, pero la tendencia es reducir a tres, cuatro. A modo de ejemplo, Errenteria, Hernani, Ordizia y Zumarraga cuentan con tres comisiones e Irun con cuatro. Hay otros que tienen más comisiones pero la tendencia es esa. El principal beneficio de que este sea el grupo principal y bajo él estén las subáreas, es la colaboración y coordinación entre ellos. El objetivo es que cada área no sea una isla, sino que se aprovechen las sinergias entre todos. El planteamiento que habéis hecho los dos es que bienestar salga de la comisión de ciudadanía y que con ello se constituya una nueva comisión. Bienestar consiste por un lado en asistencia y por otro en prevención, y en materia preventiva, sobre todo, es imprescindible la colaboración de todos los demás, ya que el departamento de bienestar no puede hacerlo sólo. Es fundamental el trabajo de juventud, deporte, etc. Hemos analizado vuestros planteamientos y mantenemos la |

| | |
|---|---|
| badituela, batetik agenda instituzionala dugu eta badagiku hilean behin izango ditugula batzordeak eta horrek gure lanerako eta gure kontziliaziorako lagundu egiten du. Azpisaileko lanak sustatzeko ere lantaldeak sortzen dira eta arduradun politiko eta teknikoen arteko elkarlanak on egiten du, Beasainen aldera. Beraz, gure proposamena aipatutako hiru batzorde horiek izatea da.” | propuesta de organización iniciada por nosotros en 2016 porque vemos que tiene beneficios, por un lado tenemos una agenda institucional que nos permite tener comisiones una vez al mes y eso ayuda a nuestro trabajo y a nuestra conciliación. También se crean grupos de trabajo para fomentar el trabajo entre las subáreas y la colaboración entre responsables políticos y técnicos es positiva para Beasain. Por lo tanto, nuestra propuesta es contar con las tres comisiones mencionadas. " |
| Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (BEASAINGO EH BILDU): “Jarri dituzun adibideak orain dela lau urte jarritakoak izan dira. Gonbidatuko nizuke, hiru batzorde izanda ere, batzorde horien funtzionamendua nolakoa den begiratzea. Orain dela lau urte formula honen ideologoa izan zen Otxaondori galdetu genioenean eredu hau herritarren eta oposizioaren parte hartzea errazteko zen erantzuna izan zen ezezkoa. Guretzat, kudeaketarako oso tresna praktikoa da baina, aldiz, beste helburu batzuetarako oso murritza da. Ongizatean prebentzioa oso garrantzitsua dela esan duzu baina uste dut ongizateak lurralde eta etxebizitzarekin ere lotura handia duela. Horrela hasita, seguraski kapilaridade bat beharko litzateke batzorde guztien artean. Dena dela, hau horrela izanda ere, egiteke geratzen den beste gauza bat ere badu Udal honek eta da, ROMa egitea. Aurreko legegintzaldian ez genuen amaitzea lortu baina tresna egokia izan beharko litzateke eredu hau aberastu eta parte hartzailegoa egiteko.” | Hasier Agirre Elkoroberezibar (BEASAINGO EH BILDU): "Los ejemplos que has puesto han sido los mismos que hace cuatro años. Te invito a que, aún contando con tres comisiones, revises el funcionamiento de las mismas. Cuando preguntamos hace cuatro años a Otxandio, ideólogo de esta fórmula, si este modelo fomentaba la participación ciudadana y de la oposición, la respuesta fue negativa. Para nosotros es una herramienta muy práctica de gestión, pero se queda corta para otros objetivos. Has dicho que la prevención es muy importante en el bienestar, pero creo que bienestar también está muy relacionado con el territorio y la vivienda. Empezando así, seguramente sería necesaria una capilaridad entre todas las comisiones. No obstante lo anterior, este Ayuntamiento tiene otra cosa pendiente y es la realización del ROM. En la anterior legislatura no se consiguió terminarlo pero debería ser una herramienta para enriquecer este modelo y hacerlo más participativo. " |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Orain lau urteko adibideak ez dira. Usurbil berriki aldatu da hiru batzorde izatera, Julen Mendozaren eskutik eta bertako Alkateak pleno batean esan zuen bezala, departamentu zuhurrenetik departamentu malguetara pasatzea da helburua. Sailen arteko elkarlana eta koordinazioa erraztu eta egunerako funtzionamendua arindu eta lan hildoak zehar-lerrotasunez landu ahal izateko. Beraz, Otxandioz gain badaude honetan pentsatzen eta udal ezberdinek aholkatzen dituzten beste pertsona batzuk. Julen Mendoza da horietako kasu bat.” | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "No son ejemplos de hace cuatro años. Usurbil ha cambiado recientemente a tres comisiones, de la mano de Julen Mendoza y como dijo su Alcalde en un pleno, el objetivo es pasar del departamentos rígidos a departamentos flexibles. Para facilitar la colaboración y coordinación interdepartamental y agilizar el funcionamiento para el día a día y poder trabajar los temas de forma transversal. Por tanto, además de Otxandio hay otras personas que piensan en esto y asesoran diferentes ayuntamientos. Julen Mendoza es uno de ellos. " |
| Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:<br><br>Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV) | Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:<br>Votos a favor: 9 (EAJ-PNV) |

| | |
|---|---|
| Aurkako botoak: 8 (BEASAINGO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)<br>Abstentzioak: 0<br><br>Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da. | Votos en contra: 8 (BEASAINGO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)<br>Abstenciones: 0<br><br>En consecuencia, se aprueba la propuesta por mayoría absoluta. |
| **4.- UDAL ORDEZKARIAK**. Erakunde kolegiatuetarako udal-ordezkariak izendatzeko proposamena. 203IDBO0010<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV), proposamenaren berri eman du: | **4.- REPRESENTANTES MUNICIPALES**. Propuesta de designación de los representantes municipales en los organismos colegiados.<br>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV) informa de la propuesta: |

| ERAKUNDEAK | Ordezkari TITULARRAK | ORDEZKO ordezkariak |
|---|---|---|
| **TOLOSAKO ESKUALDEKO ABERE HILTEGIA** | - MARIA ELENA RUIZ ZABALA<br><br>- MARIOLA PASCUAL PAREDES | - OLATZ ARRESE IMAZ<br><br>- AITOR ALDASORO ITURBE |
| **SASIETA MANKOMUNITATEA** | - LEIRE ARTOLA UGALDE (10,0 boto)<br><br>- EDORTA DIAZ DEL RIO (9,9 boto) | - AITOR ALDASORO ITURBE (10,0 boto)<br><br>- EVA ALVAREZ ATANES (9,9 boto) |
| **GOIERRIKO NEKAZARITZA ELKARTEA** | - EDORTA DIAZ DEL RIO | - MARIA ELENA RUIZ ZABALA |
| **UR-PARTZUERGOA** | - LEIRE ARTOLA UGALDE (5 boto) | - EDORTA DIAZ DEL RIO (5 boto). |
| **HAURRESKOLA PARTZUERGOA** | - MARIOLA PASCUAL PAREDES (2 boto) | - ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA (2 boto) |
| **GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA** | - ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA (udalaren partizipazioa %2,66koa da) | - AITOR ALDASORO ITURBE (udalaren partizipazioa %2,66koa da) |
| **GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA** | - LEIRE ARTOLA UGALDE | - NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL |
| **IKASLAN** | - LEIRE ARTOLA UGALDE | - HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR |
| **GOIERRI GOI MAILAKO ESKOLA** | - LEIRE ARTOLA UGALDE | - HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR |
| **EUSKAL FONDOAN** | - MARIOLA PASCUAL PAREDES | - LEIRE ARTOLA UGALDE |

| | |
|---|---|
| Gero geratuko litzaikuge GOIEKI eratzea. Administrazio Kontseiluan Beasainek hiru kide ditu. Espiritua noizbait apurtzeko arriskua egon | Luego quedaría la constitución de GOIEKI. En el Consejo de Administración Beasain tiene tres miembros. El espíritu, aunque en alguna ocasión |

| | |
|---|---|
